

## Primeras Jornadas de Lingüística Vasco-Románica

---

Es bien sabido que las relaciones de diversos romances hispanos y galorrománicos con la lengua vasca fueron objeto de atención de destacadas figuras de la diacronía ya en el pasado siglo. Muchas cuestiones abordadas por el mismo Menéndez Pidal y por supuesto por Mitxelena –que no es necesario recordar aquí– podrían ser integradas bajo el epígrafe de la Lingüística vasco-románica. No obstante, hay dos aportaciones que confieren especial identidad bibliográfica a este concepto: la obra de María Teresa Echenique *Historia lingüística vasco-románica*<sup>1</sup>, y sus *Estudios Lingüísticos vasco-románicos*<sup>2</sup>.

Numerosos trabajos han engrosado a lo largo de las últimas décadas el repertorio de este campo de investigación cuyas fronteras pueden resultar un tanto indefinidas. Precisamente por eso, hay que decir que las Primeras Jornadas de Lingüística vasco-románica se organizaron a partir de una concepción amplia de estos límites temáticos que incluye cuestiones del contacto de euskara y romance en el plano diacrónico y en lo contemporáneo –a través de enfoques tan varios como los estudios documentales o la sociolingüística–, pero también análisis más específicos concernientes a aspectos de una u otra lengua que pueden contribuir a la mejor comprensión de los fenómenos derivados del contacto en los diversos planos.

La conveniencia de promover un foro, hasta entonces inexistente, en el que se expusieran algunos de los pasos más recientes dados en estas vías, y en el que los especialistas pudieran compartir y discutir reflexiones y puntos de vista, fue plenamente aceptada en la sección de Lengua y Literatura de Eusko-Ikaskuntza cuando la idea de las jornadas fue propuesta por varios de sus miembros que trabajan en este campo<sup>3</sup>. De su organización surgió un programa representativo de la pluralidad temática, cronológica o diatópica que, como hemos dicho, cabe en los límites de lo vasco-románico.

---

1. ECHENIQUE, María Teresa, *Historia lingüística vasco-románica: intento de aproximación*, Donostia, Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa. 1984 (2ª ed. rev.- Madrid: Paraninfo, 1987).

2. ECHENIQUE, María Teresa, *Estudios lingüísticos vasco-románicos*, Madrid, Istmo, 1997.

3. Miembros también del *Seminario Alfonso Irigoien*.

Tal pluralidad es objeto de tratamiento en la misma conferencia inaugural de M<sup>a</sup> Teresa Echenique *Historia lingüística vasco-románica: tareas acabadas y perspectivas futuras. Euskera eta inguruko erromantzeen arteko harreman historikoak: egina eta eginkizun*. En efecto, aun aceptando que los principios de la Historia lingüística vasco-románica están ya bien fundamentados, la autora señala la necesidad de nuevos trabajos que examinen la influencia mutua de lo vasco y lo románico en los diferentes niveles lingüísticos y en distintos periodos. Entre otras cuestiones, propone como objetivos renovar la visión e influencia de los sustratos europeos y su relación con los hispánicos, continuar en la línea de análisis lingüístico de *corpora*, completar en un estudio de conjunto los importantes trabajos parciales sobre las relaciones vasco-románicas en fraseología y léxico y, finalmente, abordar el estudio historiográfico, desde la perspectiva castellana, de diccionarios y gramáticas de lengua vasca surgidas tras la polémica entre apologistas y detractores de dicha lengua.

En su ponencia *El romance de los documentos vizcaínos en el espacio variacional castellano*, Carmen Isasi expone igualmente un horizonte de trabajos realizados y tareas pendientes, con referencia en especial a la caracterización del castellano de la documentación medieval vizcaína, caracterización que, por ahora, entiende debe enmarcarse en el continuo románico del noreste peninsular y sobre la que señala algunas cuestiones hasta ahora no tenidas en cuenta que deben estudiarse en el plano morfosintáctico.

Trata también de otro romance desarrollado en convivencia con la lengua vasca la aportación de Carmen Saralegui (*Romance patrimonial y romance importado en Navarra*), quien analiza las diferencias que median entre las hablas actuales del español de Navarra. En efecto, a partir de la observación de algunos mapas del ALEARN, se puede comprobar que los rasgos característicos de las zonas sur y media, en las que el romance es patrimonial, coinciden con territorios próximos como La Rioja y Aragón. En el norte de Navarra, en cambio, que fue en origen vascohablante, se pueden distinguir dos zonas: la oriental, con una adopción relativamente temprana del romance y que atestigua variantes aragonesas y del sur de Navarra, y la occidental, donde las soluciones coinciden con el castellano transmitido por la escuela o por hablantes tipológicamente castellanos.

En lo que concierne al análisis de aspectos específicos de la lengua vasca, la ponencia de Joseba Lakarra (*Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica*) desarrolla una reflexión de tipo metodológico al reunir diversas pruebas a favor de un acercamiento holístico diacrónico que aporte argumentos y direcciones tendentes a mejorar y encauzar la reconstrucción interna de lenguas genéticamente aisladas, una vez comprobado que tanto el método histórico-comparado tradicional como otros alternativos –glotocronología y comparación masiva– han resultado insuficientes. Desde este enfoque, el estudio de la estructura y evolución de la raíz y fenómenos conexos, junto con el descubrimiento de restricciones y generalizaciones, ha permitido una reconstrucción más profunda que la llevada a cabo por Mitxelena, considerada hasta este momento como definitiva.

J. I. Hualde sintetiza en *Estado actual de las investigaciones sobre acentuación vasca* los estudios sobre el tema desde las primeras descripciones de Larramendi hasta las polémicas surgidas en el siglo XX, debidas, entre otras razones, al carácter tonal del acento en gran parte de este ámbito vasco, como el norte de Vizcaya y el occidente de Navarra. Sobre el área vizcaína se han descrito los tipos y subtipos acentuales y su extensión geográfica, los principios que rigen la posición del acento en las diversas variedades, los patrones entonativos y la organización del enunciado en frases prosódicas. No obstante, falta aún por establecer la relación entre el llamado “acento nuclear” y la expresión del foco. En el caso del occidente de Navarra, necesitado aún de nuevos análisis, este autor observa un descenso tonal más amplio en singular que en plural y la presencia en este último de un segundo acento sobre la desinencia.

Se ocupa igualmente de una descripción acentual la aportación de Aritz Irurtzun (*Fonetikak Bideratutako Aldaketa Fonologikoak*), quien describe los patrones acentuales de la lengua vasca en Rentería a partir de la revisión de la bibliografía sobre el tema relativa a esta zona y sus aledaños y la comparación de los modelos actuales con las grabaciones realizadas por Mitxelena.

Aspectos varios del contacto de lenguas o, más genéricamente, del plurilingüismo, están presente en varias de las participaciones. Así, la ponencia de Hernán Urrutia (*El bilingüismo en la CAV (Comunidad Autónoma Vasca): aspectos lingüísticos y educativos*) trata las influencias mutuas de estas lenguas; a este respecto, revisa capítulos clásicos de la Historia de la Lengua Española, plantea cuestiones de interés reciente, como la polivalencia del infinitivo o las restricciones en el uso de algunas formas temporales, y reflexiona sobre la necesidad de atender en estos análisis no sólo a aspectos gramaticales, sino también a factores diastráticos, diafásicos y diatópicos, que, por ejemplo, pueden observarse en la variedad de usos pronominales del castellano del País Vasco.

En lo que respecta al castellano actual de hablantes vascos, la comunicación de Teresa Fernández Ulloa (*Influencias morfosintácticas de la lengua vasca en el castellano actual: orden de elemento y condicional por subjuntivo*) se ocupa de dos fenómenos morfosintácticos: el orden de los elementos oracionales en el castellano de hablantes de Bermeo, posiblemente influido por el orden de la lengua vasca, y la sustitución del subjuntivo por el condicional, para la que propone una interpretación a la luz de un fenómeno de simplificación por contacto lingüístico.

En el mismo campo del contacto de lenguas, la comunicación de Orreaga Ibarra (*Hiru hizkuntzaren arteko ukipena. Frantsesa, gatzelania, euskera, Pirinioetako ibar batean*) recoge algunos aspectos propios de la zona pirenaica, en la que es posible observar, por un lado, la interferencia de léxico románico en lengua vasca y, por otro, el influjo vasco en diversos niveles del castellano de la zona.

El plurilingüismo es también el marco en el que puede ubicarse la comunicación de Begoña Sarrionandia (*Tipología de errores: análisis de un corpus escrito y oral entre hablantes euskaldunizados*) que, desde el punto de vista de la investigación en la enseñanza de segundas lenguas, muestra un modelo alternativo de la competencia lingüística en euskara y propone un sistema de evaluación para las competencias oral y escrita a partir de una tipología de errores. En esta misma línea, pero con perspectiva diacrónica, Daniel M. Sáez (*L'interprète Ou Traduction du Francois Espagnol & Basque (1620) de Voltaire en el marco vascorrománico y europeo*) se ocupa de un manual trilingüe (español-francés-euskera) de Voltaire, que incorpora en la tradición románica y paneuropea de manuales de enseñanza de lenguas. Por su parte, Josu Bijuesca (*Fragmentos de poesía vasca en la literatura española de los Siglos de Oro: reescritura y manipulación*) analiza las voces de personajes vizcaínos con fragmentos de poemas en euskera en la literatura hispánica de los Siglos de Oro, con objeto de esclarecer los motivos y efectos de esta reescritura y de establecer la relación entre estas literaturas.

No está ausente de este mosaico el campo de la edición y análisis de documentos. En este sentido, Soledad Gancedo (*Abreviaturas y signos abreviativos en la documentación original del siglo XV del Archivo Municipal de Durango*) analiza en un corpus durangués del siglo XV algunos aspectos paleográficos relacionados con la historia de la cultura escrita y de gran importancia a la hora de fijar criterios de edición. En lo concerniente al ámbito literario, Consuelo Villacorta (*Edición crítica del Libro de las Buenas Andanças e Fortunas que fizo Lope Garçia de Salazar: transmisión manuscrita, fuentes escritas y tradición oral*) presenta una edición crítica de esta obra acompañada de un exhaustivo estudio codicológico, *stemma* y comentario de los recursos históricos y literarios empleados en la obra del vizcaíno.

Siempre en lo que se refiere al aprovechamiento de los fondos documentales, M<sup>a</sup> Ángeles Libano (*El punto de vista filológico en las fuentes medievales del País Vasco: elaboración y análisis de corpus*) expone los resultados por ahora obtenidos en un proyecto basado en un *corpus* compuesto fundamentalmente por documentos tempranos de Castilla, La Rioja y Aragón y que contiene referencias a los territorios de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. El proyecto ha completado ya varias fases que han permitido conocer aspectos relativos a la formación, origen y difusión de antropónimos y topónimos y descubrir la aparición de un vocabulario romance que, en el caso de las referencias a lo cotidiano, coincide en gran medida con las áreas circundantes, pero refleja también la convivencia de la lengua vasca con la presencia latino-románica.

Varias comunicaciones han ejemplificado igualmente otras perspectivas de acercamiento a las fuentes documentales notariales; así, la Diplomática, como propone Asier Romero en la comunicación *La edición filológica de documentos desde una perspectiva diplomática*, al estudiar un centenar de documentos vizcaínos de los siglos XV y XVI desde las relaciones entre notariado y escritura; las tradiciones discursivas, que son la perspectiva de la comunicación de Carmen Moral (*Hacia una tradición discursiva de las Cartas de Venta*

en el espacio vasco-románico de la Baja Edad Media) en la que se analizan algunas cartas de venta guipuzcoanas de los siglos XIV y XV. Enlazada con la tipología documental está la comunicación sobre *Las palabras olvidadas. Una aproximación a nuevas fuentes para el estudio del euskera. Los archivos criminales del País Vasco*, cuyo autor, Carlos Rilova, recupera voces y frases del euskera en actas castellanas de procesos de los siglos XVI al XVIII conservadas en archivos guipuzcoanos.

En una línea de trabajo orientada al análisis lingüístico, la comunicación de Sara Gómez Seibane (*Análisis del registro coloquial de un expediente de Portugalete de 1708*) describe elementos relacionados con la conversación oral y su articulación en una interacción conflictiva recogidos en declaraciones de testigos en procesos judiciales de la Bizkaia del XVIII, en tanto que la de José Luis Ramírez Luengo (*Para la historia de si tendría: el empleo del pretérito de subjuntivo en la Guipúzcoa del siglo XVIII*) estudia usos del pretérito de subjuntivo en textos guipuzcoanos del siglo XVIII para llegar, entre otras, a la conclusión de que este tiempo no es sustituido aún en ese periodo por el futuro hipotético, hecho que le lleva a plantear la necesidad del rastreo del origen de este fenómeno en los siglos XIX o XX. Por su parte, Nuria Polo (*Breve aproximación a los adverbios pronominales y y ende en documentos notariales de la Vizcaya tardomedieval*) señala el mantenimiento de *ende* y sus variantes en la *scripta* de Lekeitio, al menos hasta el siglo XVI, en expresiones formularias.

Tres comunicaciones tratan el área de la toponimia: la de Elena Martínez de Madina (*Cuestiones metodológicas sobre la investigación en toponimia histórica: un modelo de base de datos*), que explica la creación una base de datos para el estudio de la toponimia histórica en un entorno bilingüe; la de Josu Gómez Pérez (*El bocho: etimología de un nombre de Bilbao*) –en la que se rastrean las primeras dataciones de la forma “bocho”, y se propone una etimología vinculada con la voz castellana “hoyo”– y por último la de Mikel Gorrotxategi (*Problemas de normativación y normalización de topónimos en áreas romanizadas del occidente de Euskal Herria*), que aborda el tema de la estandarización o normativización de topónimos, especialmente problemático en áreas donde conviven varias lenguas y en el caso de la toponimia menor.

Tal como se propuso en la convocatoria, las jornadas atendieron asimismo a aspectos metodológicos del uso de las TIC que pueden ser también aplicables a la investigación en el ámbito de la Lingüística vasco-románica, bien por la aplicación de nuevos criterios y estándares en la edición de textos, bien por la utilización de bases de datos u otras herramientas informáticas. En este sentido, la ponencia de Carmen Isasi recoge, en una reflexión final, la importancia de la TEI para la descripción de manuscritos a través de un breve comentario de las propuestas de TEI-Master<sup>4</sup>.

---

4. Recuérdese que las *Jornadas* se desarrollaron en octubre de 2004, es decir, antes de la publicación de TEI P5.

Este interés por el aprovechamiento de la informática ocupa igualmente los contenidos de otras intervenciones. Así, Coloma Lleal (*Lematización automática y diccionarios electrónicos*) explica en su ponencia las fases de realización de un diccionario electrónico castellano del siglo XV cuyo objetivo principal es el manejo y disposición de gran cantidad de información (lemas, variantes, etimología, cronología, frecuencias absolutas y relativas de aparición, acepciones o listados). El proceso de lematización y etiquetado que se sigue en su proyecto –tras la transcripción y exportación a una base de datos de los textos– es automático en el 96,7% de las formas, aunque no excluye una fase de revisión y validación manual.

Varias cuestiones metodológicas del tratamiento informático son abordadas asimismo por la comunicación de Joseba Abaitua *et al.* (*La gestión de documentación bilingüe (euskera y castellano) mediante estándares XML de traducción y lingüística de corpus*), donde se propone un modelo de gestión de traducciones (aplicable a los textos bilingües administrativos) con lenguajes de etiquetado basados en XML. En la misma línea, como se ha dicho más arriba, la comunicación de Elena Martínez de Madina se centra en la elaboración de una base de datos.

Finalmente, la conferencia de clausura de Rosa Miren Pagola *Lazarragaren eskuizkribua: grafiak, hotsak eta hitzak* reúne varias de las áreas de interés abordadas en las jornadas: centrada en un tema de edición, la del manuscrito de Lazarraga, toca al mismo tiempo la intersección de la tradición escrituraria de la lengua vasca con la del castellano y la necesidad de atender a ambas vertientes para la acertada interpretación grafemática o fonológica, entre otras cuestiones lingüísticas.

No debemos cerrar esta síntesis sin destacar la productividad de las jornadas en lo que se refiere al diálogo entre público y ponentes, así como la utilidad de los tres días de trabajo no sólo para la difusión de una parte de los estudios que se están realizando en este campo en nuestros días, sino para poner de relieve, una vez más, la importancia de las carencias. Es claramente perceptible entre ellas la desigualdad en el conocimiento de la realidad lingüística romance del área vasca occidental, puesto que contamos con más datos sobre Vizcaya que sobre Álava y Guipúzcoa; por añadidura, para esta última zona, como para áreas más orientales, queda mucho por hacer, incluso desde el punto de vista de las ediciones, en torno a la historia del gascón.

En segundo lugar, hay que decir que, pese a la excelente contribución que supone la serie *Fuentes Documentales del País Vasco*, editada por la Sociedad de Estudios Vascos “Eusko Ikaskuntza”, queda mucha documentación castellana por expurgar en los archivos, por ejemplo en lo que concierne a documentos privados, y falta incrementar nuestro conocimiento de testimonios que vayan más allá del siglo XVI. Es de desear, por otra parte, que en el plano de la edición se produzca a corto plazo la irrupción de corpus digitalizados.

Sólo tras la recuperación de los documentos será posible abrir para etapas por ahora prácticamente no estudiadas, es decir, los siglos XVII, XVIII y XIX el capítulo de la descripción lingüística. Y pese a la relevancia de algunos trabajos ya realizados, cabe también, desde luego, ahondar en recogidas de tipo sociolingüístico para lo contemporáneo.

Hay que subrayar, por último que, como varias de las intervenciones de estas jornadas han ido poniendo de relieve, los progresos en el conocimiento de la diacronía de la lengua vasca son indispensables para la mejor intelección de muchos de los temas aún pendientes en el campo de lo vasco-románico.

Confiamos en que la realización de unas *Segundas Jornadas* nos permita verificar, en un plazo no muy lejano, el progreso de estas tareas.

Carmen Isasi Martínez, Sara Gómez Seibane  
*Editoras Literarias*

## Lehen Euskal-Erromantze Linguistika Jardunaldiak

---

Jakina denez, joan den mendean jadanik, hispaniar eta galiar erromantzeen eta euskararen arteko erlazioek erakarri egin zuten diakronian aditu entzute-tsuak zirenen arreta. Menéndez Pidalek berak eta, jakina, Mitxelenak –hemen oroitarazi beharrik ez– helduriko gai asko Euskal-erromantze Linguistika epigrafearen azpian bil daitezke. Dena den, bi ekarpenek nortasun bibliografiko berezia ematen diote kontzeptu horri: María Teresa Echeniqueren *Historia lingüística vasco-románica*<sup>1</sup>, eta egile beraren *Estudios de Historia lingüística vasco-románica*<sup>2</sup> izenburuko obrak.

Azken hamarkadetan lan ugari luzatu egin dute hain muga zehatzik ez duen ikerketa alor honetako errepertorioa. Horregatik, hain zuzen ere, esan beharra dago Lehen Euskal-erromantze Linguistika Jardunaldiok antolatzerakoan, gaimuga horiei buruzko ikusmolde zabala izan genuela oinarri, bertan sartu baitira euskara eta erromantzearen arteko ukipen kontuak, hala alderdi diakronikoari buruzkoak nola gaur egungoari buruzkoak –dokumentazio azterlanak edo sozio-linguistika bezain ikuspegi desberdinetatik–, baina baita azterketa bereziagoak ere, hizkuntza baten alderdiren bat kontuan hartu eta maila desberdinetako ukipenetik datozen fenomenoak hobeto ulertzen lagun dezaketena.

Bide hauetan barrena berriki egindako urratsak azaltzeko foro bat, adituek hausnarketak eta ikuspuntuak partekatu eta eztabaidatu ahal izango luketen foro bat bultzatzeko aukera erabat onartu zuen Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura sailak, alor horretan diharduten kide batzuek jardunaldien ideia proposatu zutenean<sup>3</sup>. Horren antolaketak gaien aniztasunaren, kronologikoaren zein diatopikoaren, erakusgarri den programa bat eman zuen, hori guztia sar-tzen baita, goian esan bezala, euskal-erromantzeen mugen barrenean.

Aniztasun horretaz mintzo da M<sup>a</sup> Teresa Echenique hasierako hitzaldian berean: *Historia lingüística vasco-románica: tareas acabadas y perspectivas futuras. Euskera eta inguruko erromantzeen arteko harreman historikoak: egina*

---

1. ECHENIQUE, María Teresa, *Historia lingüística vasco-románica: intento de aproximación* 2<sup>a</sup> ed. rev.- Madrid: Paraninfo, 1987.

2. ECHENIQUE, María Teresa, *Estudios de Historia lingüística vasco-románica*, Madrid, Istmo, 1998.

3. *Alfonso Irigoien* Mintegiko kideak ere.

eta eginkizun. Hain zuen ere, Euskal-erromantze Linguistikaren Historiaren printzipioak jadanik ongi zimendaturik daudela onarturik ere, hainbat hizkuntza maila eta alditako euskararen eta erromantzeen elkarreragina aztertuko duten lan berrien premia dago, egileak nabarmentzen duenez. Besteak beste, ondokoak proposatzen ditu helburu gisa: europar substratruen ikuspegia eta eragina zein hispaniarrekin duten erlazioa berritzea, *corpora*-en azterketa linguistikoaren ildotik jarraitzea, fraseologia eta lexikoaren alorrean euskararen eta erromantzeen arteko erlazioei buruz egindako lan partzial garrantzitsuak osatzea baterako azterlan baten bidez eta, azkenik, euskararen apologisten eta aurkakoen eztabaidaren ondoren sortu ziren hizkuntza horren hiztegi eta gramatiken azterketa historiografikoari ekitea gaztelaniaren ikuspegitik.

Carmen Isasik *El romance de los documentos vizcaínos en el espacio variacional castellano* izenburuko ponentzia, era berean, eginik eta eginkizun dauden lanen panorama azaltzen du, bereziki Erdi Aroko gaztelaniazko bizkaitar dokumentazioaren karakterizazioa aipatzen duela, oraingoz penintsulako ipar-ekialdeko erromantze continuum-ean kokatu beharrekoa, eta horren inguruan gaur arte kontuan hartu ez eta maila morfosintaktikoan aztertu beharrekoak diren gai batzuk nabarmentzen dituela.

Carmen Saralegiuren ekarpenak (*Romance patrimonial y romance importante en Navarra*), halaber, euskararekin batera bizi eta garatu den beste erromantze batez dihardu. Nafarroako egungo espainiar hizketen arteko desberdintasunak aztertzen ditu ikertzaile honek. Hain zuzen ere, ALEARNEko mapa batzuk behatzearen ondorioz, egiazta daiteke hegoalde eta erdialdeko eskualdeen bereizgarriak, erromantzea ondarezkoa duten eskualdeetan, bat datozela hurbileko eskualdekoekin, hala nola Errioxa eta Aragoikoekin. Nafarroako iparraldean, jatorriz euskal hiztuna izan zen horretan, ordea, bi eskualde bereiz daitezke: ekialdekoa, erromantzea aski goiz beretu zuena eta Aragoiko eta Nafarroako hegoaldeko aldaeren lekukotasunak ageri dituen, eta mendebaldekoa non soluzioak bat datozen eskolak edo tipologia aldetik gaztelaniadun direnek bideraturiko gaztelaniarekin.

Euskal hizkuntzaren alderdi berezien azterketari dagokionez, Joseba Lakarrak, *Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica* izenburuko txostenean, metodologia mailako hausnarketa egiten du, hurbilketa holistikoki diakroniko baten alde hainbat froga biltzen dituela, genetikoki bakarrik hizkuntzen barne berreraiketa hobetzea eta bideratzea lagunduko duten argudioak eta norabideak ekarriko dituelakoan, hala metodo historiko-konparatu tradizionalak nola beste metodo alternatibo batzuk –glotokronologia eta konparazio masiboa– nahikoa ez direla egiaztatu ondoren. Ikuspegi horretatik, erroaren egitura eta bilakaeraren azterketak eta loturiko fenomenoak, murrizketak eta orokortzeak aurkitzearekin batera, gaur arte behin betikotzat joa zen berreraiketa klasikoa baino berreraiketa sakonagoa gauzatzen ahalbidetu du.

J. I. Hualdek *Estado actual de las investigaciones sobre acentuación vasca* izenburukoan gai horri buruzko azterlanak laburbiltzen ditu, Larramendiren lehen deskripzioetatik XX. mendean sorturiko eztabaidetaraino, beste zenbait arrazoiren artean, euskal eremukoko zati handi bateko azentuaren ezaugarri

tonalagatik, hala nola Bizkaiko iparraldean eta Nafarroako mendebaldean. Bizkaiko eremuan ondokoak deskribatu dira: azentu motak eta azpimotak eta hartzen duten hedapen geografikoa, azentuaren lekunea gobernatzen duten printzipioak aldaera desberdinetan, intonazio patrioiak eta enuntziatuaren antolaketa esaldi prosodikoetan. Nolanahi ere, oraindik ez da finkatu “azentu nuklear” deiturikoaren eta fokoaren adierazpenaren arteko erlazioa. Nafarroako mendebaldearen kasuan, oraindik azterketa berrien beharra dagoela, egile honek tonu beharitze zabalagoa ikusten du singularrean pluralean baino, bai eta pluralean desinentziaren gainean bigarren azentu bat dela ere.

Orobat, azentuaren deskripzioaz dihardu Aritz Irurtzunen ekarpenak (*Fonetikak Bideratutako Aldaketa Fonologikoak*). Errenteriako euskararen azentu patrioiak deskribatzen ditu eskualde horri eta ingurukoari dagokion bibliografiaren berrazterketa oinarri harturik eta egungo ereduak Mitxelenak egindako grabazioekin konparatuz.

Hizkuntza ukipenaren edo, era orokorragoan, hizkuntza aniztasunaren alderdi batzuk ageri dira hainbat lanetan. Hala, Hernán Urrutiaren txostenak (*El bilingüismo en la CAV (Comunidad Autónoma Vasca): aspectos lingüísticos y educativos*) bi hizkuntza horien arteko eraginak ditu aztergai; ildo horretatik, Espainiaren Historiaren atal klasikoak berrikusten ditu, interes berriko arazoak planteatzen ditu, hala nola infinitiboaren balio aniztasuna edo denbora adizki batzuen erabilera murrizketak, eta gogoeta egiten du halako azterketetan gramatika alderdiak ez ezik, faktore diastratiko, diafasiko eta diatopikoak ere kontuan hartu beharraz, zeintzuk ikus baitaitezke, adibidez, Euskal Herriko gaztelaniaren erabilera pronominalen ugaritasunean.

Euskal hiztunen gaurko gaztelaniari dagokionez, Teresa Fernández Ulloaren komunikazioak (*Influencias morfosintácticas de la lengua vasca en el castellano actual: orden de elemento y condicional por subjuntivo*) bi fenomeno morfosintaktikoz dihardu: perpaus elementuen ordena Bermeoko hiztunen gaztelanian, segur aski euskararen ordenak eragiten diela, baldintzako moduak subjuntiboa ordezkatzea, hizkuntza ukipenak eragindako sinplifikazio fenomenoaren argitan interpretatzen duena.

Hizkuntza ukipenaren alor berean, Orreaga Ibarearen komunikazioak (*Hiru hizkuntzaren arteko ukipena. Frantsesa, gaztelania, euskera, Pirinioetako ibar batean*) Pirinio aldeko ezaugarri batzuk biltzen ditu, ikus daitekeelarik, alde batetik, lexiko erromantzearen interferentzia euskararen baitan eta, bestetik, euskararen eragjna eskualdeko gaztelaniaren hainbat mailatan.

Begoña Sarrionandiaren komunikazioa ere (*Tipología de errores: análisis de un corpus escrito y oral entre hablantes euskaldunizados*) eleaniztasunaren esparruan koka daiteke. Irakaskuntzako bigarren hizkuntzen ikerketaren ikuspuntutik, euskarazko hizkuntza gaitasunaren ordezko eredu bat azaltzen du eta ahozko eta idatzizko gaitasunetarako ebaluazio sistema bat proposatzen du, hutsen tipologia batean oinarritua dena. Ildo beretik, baina ikuspegi diakronikotik, Daniel M. Sáezek (*L'interpréter Ou Traduction du Francois Espagnol & Basque (1620) de Voltaire en el marco vascorrománico y europeo*) Voltaireren

hiru hizkuntzako (espainiera-frantsesa-euskara) eskuliburu batez dihardu, zeinak hizkuntzak irakasteko eskuliburuen tradizio erromantze eta paneuroparra biltzen duen. Bere aldetik, Josu Bijueskak (*Fragmentos de poesía vasca en la literatura española de los Siglos de Oro: reescritura y manipulación*) Urrezko Mendeetako literatura hispaniarreko bizkaitar pertsonaien hitzak aztertzen ditu euskarazko poema zatien bidez, berridazketa horren arrazoiak eta ondorioak argitu eta literatura horien arteko harremana azaltzearen.

Dokumentuen edizio eta azterketaren alorra ez da falta mosaiko honetan. Ildo horretatik, Soledad Gancedok (*Abreviaturas y signos abreviativos en la documentación original del siglo XV del Archivo Municipal de Durango*) alderdi paleografiko batzuk aztertzen ditu Durangoko XV. mendeko corpus batean, kultura idatziaren historiarekin zeriukisa dutenak eta garrantzi handikoak edizio irizpideak finkatzerakoan. Literaturaren alorrari dagokionez, Consuelo Villacortak (*Edición crítica del Libro de las Buenas Andanças e Fortunas que fizo Lope Garçia de Salazar: transmisión manuscrita, fuentes escritas y tradición oral*) obra horren edizio kritikoa aurkezten du, horrekin batera azterlan kodikologiko sakona, *stemma* eta bizkaitarraren obran erabilitako baliabide historiko eta literarioen iruzkina egiten dituela.

Dokumentu funtsaren ustiapenaren alorrean betiere, Gaztela, Errioxa eta Aragoiko dokumentu goiztiarrek osaturiko corpus batean oraingoz lorturiko emaitzak aurkezten ditu M<sup>a</sup> Ángeles Libanok (*El punto de vista filológico en las fuentes medievales del País Vasco: elaboración y análisis de corpus*), dokumentu horiek Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia lurraldeen erreferentziak dauzkatela. Proiektuak dagoeneko zenbait fase burutu ditu; horien bidez, hainbat antroponimo eta toponimoren eraketa, jatorri eta hedapenari dagozkien alderdiak ezagutu ahal izan dira, bai eta hitz altxor erromantze baten agerpena aurkitu ere, zeina, eguneroko erreferentziei dagokienez, inguruko eskualdeetakoekin bat datorren neurri handi batean, baina baita euskara eta latin-erromantzea elkarrekin bizi izana ere agertzen duen.

Zenbait komunikaziok, era berean, dokumentu funts notarialetara hurbiltzerakoan bestelako ikuspegiak erabili dituzte. Hala, diplomatikoa proposatzen du Asier Romerok *La edición filológica de documentos desde una perspectiva diplomática* izenburuko komunikazioan, XV. eta XVI. mendeetako Bizkaiko ehun dokumentu inguru aztertu dituela, notariotzaren eta idazketaren arteko harremanen ikuspuntutik; diskurtso tradizioak dira Carmen Moralen komunikazioaren muina (*Hacia una tradición discursiva de las Cartas de Venta en el espacio vasco-románico de la Baja Edad Media*), bertan Gipuzkoako XIV. eta XV. mendeetako salmenta gutun batzuk aztertzen dituela. Dokumentu tipologiarekin loturik ageri da Carlos Rilovaren komunikazioa (*Las palabras olvidadas. Una aproximación a nuevas fuentes para el estudio del euskera. Los archivos criminales del País Vasco*); bertan, egileak euskarazko hitzak eta esaldiak berreskuratzen ditu Gipuzkoako artxiboetan gorderik dauden XVI.-XVIII. mende bitarteko prozesuen gaztelaniazko aktetatik.

Azterketa linguistikora zuzenduriko jardunbide batean, Sara Gómez Seibaneren komunikazioak (*Análisis del registro coloquial de un expediente de Portugaleta de 1708*) ahozko solasarekin loturiko elementuak eta horiek, elkarreragin gatatzatsu batean, duten artikulazioa deskribatzen ditu, XVIII. mendeko Bizkaiko prozesu

judizialeko lekukoak deklarazioetatik bildu dituela elementu horiek; José Luis Ramírez Luengok (*Para la historia de si tendría: el empleo del pretérito de subjuntivo en la Guipúzcoa del siglo XVIII*), bere aldetik, subjuntiboko lehenaldiaren erabilerak aztertzen ditu XVIII. mendeko Gipuzkoako testuetan, eta horretatik ondorioztatzen du, besteak beste, garai horretan ez zuela alegiazko geroaldiak aditzaldi hori ordezkatzeko, eta horrek eramaten du fenomenoaren jatorria XIX. edo XX. mendean arakatzeko beharra planteatzera. Nuria Polok (*Breve aproximación a los adverbios pronominales y y ende en documentos notariales de la Vizcaya tardomedieval*), aldiz, Lekeitioko *scripta-n ende* eta horren aldaeren iraupena nabarmen-tzen du, gutxienez XVI. mendera arteko formulazko esamoldetan.

Hiru komunikaziok toponimiaren alorra lantzen dute: Elena Martínez de Madinarenak (*Cuestiones metodológicas sobre la investigación en toponimia histórica: un modelo de base de datos*) inguru elebidun bateko toponimia historikoa aztertzeko datu base baten eraketa azaltzen du; Josu Gómez Pérezen lanean (*El bocho: etimología de un nombre de Bilbao*) “bocho” hitzaren lehen datazioak arakatzeko dira, eta gaztelaniazko “hoyo” hitzarekin loturiko etimologia proposatzen da; azkenik, Mikel Gorrotxategirenak (*Problemas de normativación y normalización de topónimos en áreas romanizadas del occidente de Euskal Herria*) toponimoen estandarizazioari edo arautzeari ekiten dio, bereziki zaila gertatzen dena hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi diren eremuetan eta toponimia txikiaren kasuan.

Deialdian proposatu zenez, jardunaldiek era berean aintzat hartu zituzten euskal erromantze linguistikaren alorreko ikerketan baliozkoak gerta daitezkeen IKTen erabileraren alderdi metodologikoak, dela testuen edizioaren inguruko irizpide eta estandar berrien aplikazioa, dela datu baseen edo beste tresna informatikoen erabilera. Ildo horretatik, Carmen Isasiren txostenak, azken gogoeta batean, eskuizkribuen deskripziorako TEI delakoak duen garrantziaz ohartarazten du TEI-Master<sup>4</sup> izenekoaren proposamenei buruzko iruzkin labur baten bidez.

Informatikaren aprobetxamenduarekiko interes horrek, orobat, beste mintzaldi batzuen edukia betetzen du. Hala, Coloma Llealek XV. mendeko gaztelaniaren hiztegi elektronikoko bat egiteko faseak azaltzen ditu bere txostenean (*Lematización automática y diccionarios electrónicos*), hiztegi horren helburu nagusia informazio kopuru handia erabiltzea eta antolatzea delarik (lemak, aldaerak, etimologia, kronologia, maiztasun absolutuak eta erlatiboak, adierak edo zerrendak). Horren proiektuan gauzatzen den lematizazio eta etiketatze prozesua –testuen transkripzioa eta datu base batera esportatu ondoren– automatikoa da formatarik %96,7n, nahiz ez duen baztertzeko berrikuste eta eskuzko balidazio fase bat.

Halaber, tratamendu informatikoaren zenbait arazo metodologikori ekitzen zaie Joseba Abaitua eta besteren komunikazioan (*La gestión de documentación bilingüe (eusquera y castellano) mediante estándares XML de traducción y lingüística de corpus*), non itzulpenak kudeatzeko eredu bat proposatzen den

---

4. Oroitu beharra dago jardunaldiak 2004an egin zirela, hau da, TEI P5 argitaratu aurretik.

(administrazio testu elebidunetan aplika daitekeena) XMLn oinarrituriko etiketatze lengoaien bidez. Ildo beretik, gorago esan bezala, datu base bat lantzea da Elena Martínez de Madinaren komunikazioaren muina.

Azkenik, Rosa Miren Pagolaren *Lazarragaren eskuizkribua: grafiak, hotsak eta hitzak* itxierako mintzaldiak jardunaldietan ukituriko interes alor batzuk bil-tzen dituela: edizio kontu batean zentratua, Lazarragaen eskuizkribuarena, era berean euskararen idazketa tradizioaren eta gaztelaniazkoaren elkargunea eta alderdi biak aintzat hartzeko premia ukitzen ditu, interpretazio grafematiko edo fonologiko egokiaren mesedetan, beste hainbat arazo linguistikoren artean.

Ez dugu sintesi hau itxi behar jardunaldien emankortasuna nabarmendu gabe, publikoaren eta txostengileen arteko elkarrizketari dagokionez. Laneko hiru egun horien onura ere azpimarratu behar, alor honetan gure egunotan egiten ari diren azterlanen parte bat zabaltzeko ez ezik, eskasien garrantzia berriro aipatzeko ere balio izan baitute. Hutsune horien artean, garbi haute-man daiteke mendebaldeko euskal eremuko erromantzearen errealtate lin-guistikoaren ezagutzan ageri den desberdintasuna, Bizkaiaz datu gehiago baiti-tugu Araba eta Gipuzkoaz baino; gainera, azken eskualde horri dagokionez, bai eta ekialderagoko eremuei dagokienez ere, lan asko dago egiteko gaskoiaren historiaren inguruan, are edizioen ikuspegitik ere.

Bigarrenekorik, esan beharra dago Eusko Ikaskuntzak argitaraturiko *Fuentes Documentales del País Vasco* (Euskal Herriko Dokumentu Iturriak) sailaren ekarpen erabakigarri bikaina gorabehera, badela gaztelaniazko doku-mentazio asko atera gabe dagoena, adibidez, dokumentu pribatuei dagokie-nean, eta gure ezagutza areagotzea falta zaigula XVI. mendeaz haratago doa-zen lekukotasunen eremuan. Nahi izatekoa da, bestalde, edizioaren mailan epe laburrera corpus digitalizatuak ager daitezen.

Dokumentazioak berreskuratu ondoren, ez lehenago, zabaldu ahal izango dugu gaur egun ia aztertu gabe dauden garaiei dagokiena, hau da, XVII., XVIII. eta XIX. mendei dagokien deskripzio linguistikoaren atala. Eta dagoeneko buruturiko zenbait lanen garrantzia gorabehera, jakina, gaur egungoan sakon-du egin ahal izango dugu soziolinguistika motako bilketetan.

Azpimarratu beharra dago, azkenik, jardunaldi hauetako hitzaldi batzuk na-barmenduz joan diren bezalaxe, euskararen diakroniaren ezagutzaren aurrera-penak ezinbestekoak gertatzen dira euskal-erromantzearen alorrean oraindik lantzeko dauden gai asko hobeto ulertzeko.

Espero dugu *Bigarren Jardunaldiak* egiteak, epe ez oso urrunera, eginki-zun horien aurrerapena egiazatzeko bide emango digula.

Carmen Isasi Martínez, Sara Gómez Seibane  
*Edizioaren Apailatzaileak*